

Arratia futbol taldea lidertzan dago jardunaldi bi jokatu ostean

10. orrialdea

Txotxongiloak, kontzertua eta ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean

Urri lehenengoaren 18an, Anita Maravillas txotxongilo konpainiaren *Jon Braun* egongo da, hilaren 24an Zeinke Lemoako taldeak kontzertua emongo dau eta hilaren 30ean, Alberto Bargas ipuin kontalariak, *Denok berdinak, denok desberdinak* kontaketea egingo dau. **12. eta 14. orrialdeak**



Amaia Aldaik San Mateo Txapelketako finala jokatu dau

10. orrialdea

Gorbeia Suzien mendi lasterketea urri lehenengoaren 26an jokatu da

Lasterketea zirkuitu bitan dago, Golden Trail National Series estatu mailakoan, eta ISF, International Skyrunner Federation-eko Munduko Kopan, hain zuzen be. Mendi lasterketari ezagunek parte hartuko dabe; Oihana Azkorbebeitiak eta Zaid Ait Malek-ek, barbarako. Hogetabat kilometroko lasterketa laburrago bat eta umeentzako beste bat be egongo dira.

Lasterketek aparte, berbaldia egongo da Igorren 24an eta zapatu-domekan jaigiroa Zeanurin, musikea, janaria eta Tio Teronen Semeak taldearen jantza ikuskitunagaz. **11. orrialdea**



Irone Costumerok errekursoa ipini dau



Garagarriaren 21ean, epaileak, BFAko Haurren Arreta Zerbitzuetako langileak absolbidu ebezan Irone Costumerok ipinitako prebarikazino, tratatu txarrak eta lesino psikologiko akusazioetatik, salatutako karguak ez ebazalako frogatutaz jo. Costumerok errekursoa ipini dau. **8. eta 9. orrialdeak**

ARTEA

Merkadua Artean hilaren 18an

Sasoi honetan baserriko produktu eta artisautza merkadua egiteko tradizioari eutsiz, merkadua egongo da Artean hilaren 18an. Hogetabi salmahai egongo dira; sei frontoian artisautzarako eta gainontzekoak kalean batez be jatekoak eskainiko dabezanak. Arrastian, musika emonaldi bi: 18:00etan, Ein Go taldea eta 21:00etan, Bitartean eta Ttarla. **7. orrialdea**

DIMA

Andra ekintzaileen azokea antolatu dau AUMk hilaren 26rako

Bardintasun Sailak, arlo ekonomikoan, gizon eta andren arteko arrakala txikitzeko, andra sortzaile eta ekintzaileen azokea antolatu dau Diman. Zidarrezko bitxiak, frutak eta barazkiak, gozoak, artelan grafikoak, erropak, narruzko produktuak eta janari marokiarrak, besteak beste egongo dira salgai. **5. orrialdea**

IGORRE

Igorreko Inbiu Euskerearen Eguna urri lehenengoaren 18an egingo da

Aldarrikapen eta jai eguna da Igorren Inbiu Eguna eta ezaugarri horreek mantendu gura izan ditu Igorreko Euskera Batzordeak. Jaia, 12:30ean hasiko da umeentzako tailerrakaz eta eszenaleku baten euskerearen aldeko mezuak grabauz. Ostean, eskola-umeak kantutak grabauko ditue.

Betiko moduko herri bazkaria ez da egingo, baina bakotzak berea eroanda be, batera bazkaldu-teko mahaiak eta aulkiak egongo dira Gaztetxe ondoko landan. Bazkalostean, Lanbroa musika taldeak emonaldia eskainiko dau. **6. orrialdea**

GARENA

Tradizio berriak

 Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant


30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseakin.com

Literatura txokoa

MALDITO GORRI

Itziar Sistiaga irundarraren hirugarren eleberria da *Maldito Gorri*. Beste biengandik sano desbardina, izan be Agustin Galabidoren biografia nobelatua idatzi dau oingoak Sistiagak. Abentura ederrean sartu da. Eta abentura ederra be irakurleak bizi dauana liburu hau irakurterakoan. Gorriren eskutik herriz herri, kontinentez kontinente bidaiatu ahal izan dot orriak aurrera pasau ahala. Gipuzkoako Ormaiztegin hasi eta Lapurdiko Sarara, Bizkaiko Ezkerraldeetik Parisera, Europatik Afrikara. Angola, Mozambike eta Hegoafrikara. Ameriketara. Asiarra. Hasikera batean ze pasarte diran egiazkoak eta zeintzuk nobelatuak ez jakiteak amorru apur bat emoten eustan. Baina kapituluak

pasau ahala... dana sinistea ebatzi neban. Holan gura naualako, beragaz bidaiatu eta beste leku zoragarri asko ezetu. Eta benetan be ikusi izan dodaz Hegoafrikako kostak, Amazonas ibaiko urak, Itsaso Beltza eta Atlantiko zabalak. Bai, izan be denpora gehiena barkuan emon dogu personaiak eta nik. Baina ez dana. Agustin, Gorri, Historiara egokitu behar izan dalako. 50. hamarkadatik gaur egunera asko aldatu da eta Euskal Herriko eta munduko Historia. Eta aurrera egin ahal izateko eta norbere burua libre sentidu ahal izateko abentura desbardinetan sartu behar izan da Gorri. Oin itsasoan, oin kamioilari, oin eraikinean. Ezkutuan be sarri. Kontrabandoaren hatzamar luzeetan jauzi zan eta, behin eta barriro.

hainbategaz nabegau izan dot. Bere maitasunen lagun egin naz: Benvinda, Yolanda, Marilou... Baina abentura guzti honeekaz be ez da guztiz zoriontsu sekula izango Gorri; zer falta jako benetan zoriontsu izateko? Oingoan be Historiaren mamuak. Zeren bila ete dabil? Txikitatik burutik kendu ezin dauana. Abentura egarriz bazagoze, edo gaur egun hain "garesti" dagozan bidaiation gogoz bazagoze, liburu aproposa da hau egarri eta gogo horreek asetuteko. Nik behintzat egundo egon bako Luanda, Río de Janeiro eta Tahiti ikusi dodaz, sentidu dodaz. Ez da ba magikoa literatureak daukan indarra?



Itziar Sistiaga
Maldito Gorri
Autoedizinoa, 2020
314 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112
Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urri lehenengoaren 13tik 19ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937
22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Urri lehenengoaren 20tik 26ra
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.
Urri lehenen. 27tik urri bi. 3ra
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154
22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notarioritza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543 / info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Eldorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.
Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefona:** 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@begitu.eus
Webgunea: www.begitu.eus
Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. **Telefona:** 94 631 73 14 eta 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. **Telefona:** 94 631 73 14 eta 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus
Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. **Telefona:** 94 631 73 14 eta 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.
Facebook: Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus. **Instagram:** @begitu.eus
Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:

Arantzazu

Areatza

Artea

Bedia

Dima

Igorre

Lemoa

Ubide

Zeanuri



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, esker-ronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: *begitu@begitu.eus* helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Iraila heldu da, Leire ta Aner instituturantz doaz, beste ikasturte bat hasteko asmoz. Badirudi udan ondo ibili direla ta kostau egingo jakiel a barriro be liburu artean murgildutea.

Leire: Aner, aurton etxekoat bape gogorik instien hasteko.
Aner: Zer ba ez? Atzeneko urtea da, ikasturte bat ta kitu, animo!
Leire: Horregeiti, bajekoat gogo a unibersidadera joateko, ta jende barrie ezetuteko.
Aner: Ba neuk beti entzun dot ez dala horrenbesterako unibersidadeko garaie. Lau urtean, behintzet, zoroan lez ikisten egon. Gozatu momentue Leire!
Leire: Ba! (erretxin). Ta atzeneko urtea danez, ia ahaleginduten hazen hika eiten mutiko, sei urtean alkarregaz ta ondino ganoraz ikisi bez.
Aner: Ia ba... Txikiten etxean entzuten neuen. Ahaleginduko naz... e... ahaleginduko nok... nona! Baia heu be animau, neska!
Leire: Tirok ba, kasu egingo doat; ta, geur zer jekuk lehenengo orduen?
Aner: "Kaparra", beti lehenengo orduen... Kaparradea emoten.
Leire: Binke. Hobe ñoan ohian lotutea!
Aner: Leire, ez zatez kakapirrie izin!
Leire: Hik aguantetan dok, ala? Berbetan hasi te... barregurea sartzean jatak.
Aner: Benetan be, ixildu be ez da eiten gixona.
Leire: Ta gu zoroan lez apunteak hartzean! Biherko saioak nigez akabeuko jok.
Biek: Kar, kar, kar!
Leire: Etxaok eskubiderik...
Aner: Türe, mobidu zatez, ia damutuko jakun.

ERETXIA

Zaindu maite
dozun hori

Ikasturte barria martxan da. Isil-isil eta logale egozan ikas-tetxeetan barriro da durundua nagusi.

Pasau dan kursoa pandemia garaian antolatutako lehena izan zan. Neurriak zorrotzak izan ziran eta hezkuntza prozesu batek izan beharko leukena asko zailtzen eban: hurrekoa, komunitateko eragile desbardinaren artean sortua... Talde txikietan itxi ginan eta lehenago naturaltasunez egiten genduzanak pekatu bihurtu genduzan. Nork pentsauko leuke taldeetan lanik ez egitera, besarkadarik edo bostekorik ez emotera edo ikasle eta lankide barrien arpegiak ez ezagutzera ohitu beharko ginanik?

Ba egin genduan eta egoera haretatik ikasi be. Aurten lasaia go hasi dogu kursoa. Prozedura batzuk barneratu doguz eta dekretu barriak tarte gehixeago emoten dau, hala nola, maila batzuetan taldekatzeak egitera. Horrek erraztu egingo dauz kooperazioan oinarritutako ikasketak. Hori dalako gure ikastetxeetako helburuetako bat eta pasau dan kursoan oso gatx egoan egiteko.

Umeak ume eta gazteak gazte! Baina pandemia ditzosoak dirana izateko aukerea be kendu deutse. Oindino gehiago, komunikabideetan gazteak kriminalizatuak be izan dira gizalegearen kontrako jarrera izateagaitik. Aisialdi eredu barriak sortu behar baditue lagundu egin beharko jakie baliabideak euren zerbitzura ipinten. Pentsetan dot nik, geuk euren edadean zer egingo genduan eta orokorrean sano ondo portau dirala ikusi dot. Behintzat, ez heldu asko baino txarrago!

Osasunaren Munduko Erakundearen arabera pandemia aurretik 5 ume eta nerabetatik 1ek arazoak eukazan garapen emozionalean edo jarkeretan. Eta ikerketek egiaztatu dabe helduen buruko gaitzen erdiek gitxienez nerabezaroan daukiela jatorria.



GALDER OLIBARES

Irakaslea

Esan beharrik ez dago zenbaki horreek txarrera egin dabela.

Ume eta gazteen ansiedade eta estres maila igon egin dira faktore desbardinakaitik: pandemiak gizartean sortu dauan bildur eta gaininformazioa; pasau beharreko berrogeialdiak, etxeratzeak; ikasketen emaitzak, eta ikasketok amaitzean, zeozertarako balioko daben mesfidantzea...

Honek hausnarketa bat egin arazoten nau: dirana ezin izan eta, krisi garai honetan, gure ikasleen beharrian emozionalak zelan asebeteko doguz?

Argi dago irakasleoi zaintza emozional handiagoa egitea toketan jakula.

Egia esan, hamarkadak dira neurohezkuntzak alderdi emozionalak ikasketetan dauan garrantziaz jabetu zala. Ez bakarrik personen arteko hartu-emonak hobeak izateko, baita edukiak epe luzeagoz gogoratzeko be. Aspaldiko kontuak dira, baina koronabirus garaiotan beharrianak handitu egin dira: aurreko ikasturteetan ikasleek bagilean izaten eben nekea igaz Aste Santuan izan eben eta horrek eragin zuena dauka klasean.

Zorionez, badira urte batzuk eskoletan emozinoen lanketea era sistematikoan egiten hasi zirla eta eredu dira Bigarren Hezkuntzako irakasleontzat.

Danon kontua da, baita instituzino publikoena be. Ardurea dogu ahalik eta baliabide gehien ipinten gure ume eta gazteen garapen emozionala osasuntsua izan daiten; baita, garapen horri bide egingo deusien tresnak sortzean be.

Paolo Freire pedagogoak inoan lez, "hezitzea beti da maitasun ekintza bat" eta zer dogu gure ume eta gazteak baino maiteago?

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO

IKUS-ENTZUNEZKOEN

ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



IXONE AROMA

Arnasgunean itota

Ikasturte barria hasi dogu. Igazko lankideak agurtu, barriei ahal dan neurrian ikastetxeko martxara moldatu- ten lagundu eta ikasle barriak ezetuteko hila irakasleontzat urri lehenengo hau. Zelan joan da uda? *Bien*.
D ereduan hezitako ikasleak, familia eta eremu erdaldune- koak. Arduratutakoa da hizkun- tzeagazko daukien jarrera, baina Arratian be ez dot kontua ondo-ondo ikusten. Obsesione- tan hasita egongo naz igual, izan be gaztelania entzuten dot baz- ter guztietan.
Prensan irakurri dodanez, udalerrí euskaldunetan, ba- tez be txikietan, euskerearen ezagutza eta erabilera datuak beherantza doaz: arnasguneak erdalduntzen dabiz. Arnasgune berbea, demografikoki euskal hiztun asko batuten dauzan guneak izendatuteko erabilten da. Herriotan euskerea modu naturalean transmitiduten da,

eta bertako herritarrentzat eu- ren bizimodua euskeraz egitea gauza normala da.
Arnasguneek honako ezauga- riak daukiez:
- Transmisinoa: Arnasgune- tan, belaunaldiz belaunaldi transmitidu da hizkuntzea, gura- soetatik seme-alabetara, modu naturalean. Bizilagunen lehen hizkuntzea euskerea da.
- Indarra: Bizi-bizirik dago eus- kerea arnasguneetan; hizkuntza "normala" da, eta garai eta ohitura barrietara egokituten da, bertako bizilagunek egoera guztietarako erabilten dabelako.
- Eredu izatearen garrantzia: Arnasguneetako herritarrak ere- du izan leitekez euskerearen nor- malizazioan. Erakutsi leikie posi- ble dala euskeraz bizi dan herria, eta posible dala bizitzako esparru guztietan euskeraz egitea.
Hizkuntza ekologiak dinoanez, horrek arnasguneok ezinbeste- koak dira hizkuntza biziko bada. Planeteak Amazonia behar dauan moduan behar dauz gure hizkuntzeak arnasguneak. Baina erdarara joten dogu behin eta ba- rriro. Ni neu itota sentiduten naz.
Artikulu hau irakurri eta uler- tuteko gai bazara zeure esku be badagoan kontua da. Zer egingo dozu? Bertan ito ala mihina jan- tzan ipini eta eredu izan?

ZERTZEAN



Lore

ALVARO RABELLI

Sinets iezadazu tenientea, horrexegatik ito nahi izan nuen sarjentua.
Lore eder-ederra zen, urteek ilunduriko begi tristeak eta ia nabariezina zen herren ahula gorabe- hera. Artean heldu zeneko edertasun samurra atxikit- zen zuen. Lore, aspaldian etorri zitzaigun, elurra ekarri zigun negu hartan, mendiak beheko magaletaraino zuriz bezitu zirenean, zuri faltsuak zuhaitz ugari erre zituen urtean. Lore beti zegoen nire ondoan. Sahats baten gerizpean eseri eta udaberriak ekarriko zigunaz, gure etorkizunaz, berba egiten genuen. Orduan, bazi- rudien nire soldadu bizitza ulertzen zuela, hegoaldeko muga zehazgabetu hartan. Lorek ere ondo ulertzen zuen apustuak egiteko neukan zaletasuna. Igandero hipodromora joaten ginen. Aspaldi zaletua nintzen Jumper izeneko zaldi batekin. Behin, lagun batek esan zidan zaldi horrek lasterketa guztiak irabaziko zi- tuela. Zaldi horrekiko zaletasuna handiagotu zitzaidan ukuiluan ikusi nuenean, hain sendo, eder eta galai. Baina, zaldi horrek ez zuen inoiz irabazi, behin ere ez. Guztietan indarrez irteten ziren, beti besteen aurretik, baina helmugara heldu baino lehentxeago ematen zuen zaldia moteltzen zela, indarra galtzen zuela. Hala ere, nik ez nuen inoiz zaldi harengan fedea galdu eta igandero dirutza ederra uzten nuen haren alde, bai

eta Lore eta bion jubilaziorako gordetzen nuena ere.
Loreri umeak gustatzen zitzaizkion eta asko pozten zen bisitatzea zetozkidanean, begiratu egiten zien, begiekin baieztapen keinua egiten zuen eta batzuetan ezteki laztantzen zituen: Luisin izan ezik, begitan hartu zuena sugandilei buztanak mozten ikusi zuenetik.
Berehala konprenitu nuen Lorek ez ninduela inoiz utziko, ez eta etxean, jubilaziorako diru guztia gastatzeagatik, gosea pasatu genuenean ere. Gre- bak eta istiluak zeuden ez dakit non, ez zegoen zerbitzurik, gosea baizik ez, jendea matxinatu zen egoera jasanezina zitzaiolako, eta mobilizatu behar izan gintuzten. Baina hain ederra zen garai hura gu- retzat. Egunero irteten ginen basora, ibilaldi luzeak egiten genituen eta gauetz Lore txunditzen zuen ilargiari begira gelditzen ginen etxeko terrazatik.
-Bart ataria zeharkatu zuen, hamabiak inguruan, etxe- ratze agindua zegoela esan nion arren, tenientea... eta barrura sar zedin irten nintzaion deitzera. Baina une horretantxe patruila mugitzen zen orori tiro egi- ten igaro zen eta ondoren isiltasunak izar formako zulo bat utzi zuen Loreren bekokian. Horrexegatik hil nahi izan nuen, sarjentuak zera esan zidalako:
-Bueno, zertarako horrenbeste koplá? Txakur-eme bat baino ez da eta.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran mo- duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Errealidadeari begiratzeko moduak sano ugariak dira, zenbatuezi- nak. Ez da bakarrik persona bakotzak bere ikuspuntua daukala, momentu bakotxean be aldatu leiteke hori ikuspuntuori. Eta beti izango da errealidadearen zati bat, nahiz eta Areatzako Nagore Agirrebeitiak Deltebren (Tarragona) ateratako argazki honetan legez, batzuetan parajeen dagozan gauzarik interesgarrienak begien parean egon (edo ez). Eskerrik asko Nagore, zure begiradea konpartidutea- rren.
Aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketarako argazkiak bialtzeko ha- mar egun baino ez dira geratzen, hilaren 25ean amaitzen da epea eta. Nagorek moduan parte hartu gura badozu, bialdu lehenbailehen zure argazkiak, hiru gehienez, begitu@begitu.eus helbidera. Irabaz- leentzat sari ederrak egongo dira. Ez galdu aukerea!





Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



begitu
eus



TOKA
Lekuntzari Agiri III
Igorri



agoa
Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igone - Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilegeta Zirkular: 100
R.P.S. 21/06


DIMA

Andren ekoizpena bistaratuteko merkadua egingo da Diman

Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasun Zerbitzuak, arlo ekonomikoan, gizon eta andren artean dagoan arrakala txikitzeko, urri lehenengoaren 26rako, andra sortzaile eta ekintzaileen azokea antolatu dau Diman, Andrak plazara(tu) izenpean.

Erredakzinoa

Merkadu honetan, lehen sekto-reko eta artisautzako produktuak edo-eta Arratia eta inguruko andren edozein motatako negozioak erakusteko 15 mahai ipiniko ditu Arratiako Udalen Mankomunitateak. Azokea, modu ibiltarian, Arratiako herrietatik zehar, urtero egiteko asmoa dago. Andrek euren produktuak edo jarduna ipiniko dabe ikusgai edo-eta salgai azokan. Eskaintza ugaria da: zidarrezko bitxiak, frutak eta barazkiak, gozoak, ogia, euskal pastela, artelan grafikoa, umeentzako erropak, euskal jantziak, narruzko produktuak eta janari marokiarra, besteak beste. Gurutze Etxebarria Dimako abeslaria taldekide dan Inbigu Gipsy Jazz taldeak girotuko dau azokea zuzenean musikea ipiniz eta Bihotz Gorospe bakarlariak emongo dau kontzertua Abaroa aretoan. Eguraldi ona bada, azokea Dimako plazan izango da; ezipabere frontoi txikian egingo da.



ZEANURI

Hainbat lanetarako lanboltsarako eskariak urri bigarrenaren 1era arte aurkeztu daitekez

Erredakzinoa

Aldaketa batzuk eginda, urri lehenengoaren 3an barriro argitaratu zan Bizkaiko Boletin Ofizialean Zeanuriko Udalaren lan eskaintzea. Oingoan, izena emoteko epea urri bigarrenaren 1ean amaituten da. Iturgintza, zurgintza, enkofratze, igeltserotza eta lorezaintza ezagutzak dituen beharginak behar dira. Zeanuriko Udalak lan anitzetarako ofizial moduan jarduteko lanboltsea osotu gura dau. Eskatzaileek urri bigarrenaren 1era arte izango dabe izena emoteko aukerea.

ARTEA

"LGTBIQ+ be bagaralako" lelopean, kolorez jantzi dau Artea Kafrangak-ek

Erredakzinoa

Aspaldion LGTBIQ+ kolektiboak izan dauan erasoaldiagaz kezkatuta, Kafrangak Arteako talde feministeak, ustrukuaren koloreetako banderearen kolearakaz jantzi dabe Kultur Etxea eta herriko plaza, eta bideo bat egin dabe. Udan, lau hitzordu izan ditue koloreetako ardi-ulea hartu eta plazan kakoratz lana egiteko. "LGTBIQ+ be bagaralako, koloreetako banderea irudikatu dogu" azaldu deusie BEGITURI Kafrangak taldekoek.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hitanoa landuko da Gure Berbategiaren Leihotxuak itxitako lekuan

Hamar urte baino gehiagotan, Angel Larreak eta Juan Rekaldek lehen gehiago erabilten ziran Arratiako berben barri emon euskuen berrehun eta hogetabost leihotxutan. Oin espazio horretan, Arratiako hitanoa landuten daben testutxoak egongo dira, Zirhika izeneko sailean. Artelatz eta Txarakin ezizenakaz sinatuten daben saileko testutxoen egileakaz egin dogu berba.

Erredakzinoa

Zelan sortu zan idea? BEGITU-rako ala aurreko proiektu baten moldaketea izan da? Oin dala hilabete batzuk hikagaz zerikusia izan eiketan zutabea martxan ipintea aurkeztu jakun. Guk dakigula, BEGITUN oin arte ez jako hikari holango tarterik eskaini, eta erronka polita iruditu jakun. Bailaran han-hemenka egitasmoak, berbaldiak, ikastarotxoak egin diran arren, ez da proiektu sendorik abiatu. Ez daki-gu, baina baleiteke egitasmo edo trebakuntza sendo baten hasikerea izatea.

Nortzuk zagoze Zirhikaren atzean? Aldez aurretik egin dozue alkarregaz lan? Momentuz Artelatz eta Txarakin –ezizenak, zelan ez– gabilz egitasmoaren atzean. Aspalditik jatorku hikagazko eta euskereagazko zaletasuna, eta noz edo noz hizkuntzeagaz zerikusia daukien formakuntzetan ibili gara, Arratian, zein hemendik kanpo. Hata guzti be, erronka barri hau kolaboratzaile zein jentearen esku hartzeagaz hornidutea gustauko litxakigu.

Zer da irakurleak topau ahal izango dauana Zirhikan? Proiektua erabat definituta ez dagoan arren, hasikera baten gazteen arteko alkarriketetan fokuratuko dogu zutabea; izan be, gure helburu nagusietakoa hika begietara eta belarrietara ekartea da. Hau da, gazteen begietara. Hata guzti be, aurrerago bestelako ekarpenak eta idazkiak sartzeako espazioa izan leiteke, zalantza barrik. Goragoan esandako moduan, kanpotik jasoten doguzan ekarpenek Zirhika zutabea elikatzea espero dogu.
Nori zuzenduta dago? Gazteei ala publiko orokorrari? Publiko orokorrari bideratuta

dago, izan be, edozeinek irakurri ahal izango ditu gure personaien alkarriketak eta pasadizoak. Baina, proiektu honen zutabea gazteak dira. Hala izatea espero dogu, behintzat. Gaur egun Arratiako gazte askori hika bera arrotza egiten jako, edo etxean zein kalean entzun arren ez dabe erabilten. Ez dogu uste zutabe honek berehalako eraginik izango dauanik irakurle gazteengan, baina belarrietatik ez ezik begietatik be sartzean bajakie... Agian erabilteko hautua egin leikie.
Proiektu zarratua da? Aldez aurretik dago zehaztuta zenbat emonaldi izango diran ala garapenak berak esango dau? Ez da proiektu zarratua, baina ernaltze prozesuan dago. Zutabea jasotako testuak bailaran egin barik dagozan egitasmoakaz buztartzea ederra izango litzateke. Hazia erein besterik ez dogu egin, elikatu eta ureztatu ahala, baleiteke etorkizunean frutuak jasotea.
Hitano eredua dala-eta, ze erispide erabili dozue aurkeztu dozuen eredua aukeratzeko? Aitortu behar dogu gatxa iruditu jakula holango zutabea martxan ipintea; hau da, hikagaz lotutako zutabea. Euskal Herrian eredu askorik ez dago, oindino gitxiago Bizkaian. Bestalde, bidetik ebartzi nahikotxo hartu behar izan doguz, batez be hizkuntzeagaz lotutakoak, fonetikea, grafia, laburdurak, bailarako aldaerak... eta abar, eta honeek, kanpotik ikusita, sarritan gatazkatsuak izan daitekez. Edozelan be, egitasmo apal honen helburua azpimarritu gurako geunke beste behin: Arratiako hika gazteen begietara hurreratzea, honen ulergarritasuna erraztea, eta aspaldiko partez galbidean dabilen andren hikari espazioa eskaintzea.

AREATZA

Andra eta gizonen arteko bardintasunaren gaineko prestakuntzea jasoko dabe udal langileek

Areatzako Udaleko langileek, andren eta gizonen arteko bardintasunaren inguruko prestakuntzea jasoko dabe hiru saioko ikastaro baten. Herritarrek eta eragileak, Parketxeko langileak eta eskolakoak, tartean, konbidau ditu Udalak parte hartu dagien ikastaroan, aforoa bete arte.

Erredakzinoa

Idoia Lekue formatzailearen eskutik, urri lehenengoaren 15ean eta 24an eta urri bigarrenaren 1ean izango dira saioak. Parte hartzeako izena emon behar da udaletxean. Lehenengo saioan oinarritzko kontzeptuak eta sensibilizazioa, bigarrenaren andren kontrako indarkeria, eta hirugarren saioan, herritarrek arreta zuzena daukien galderak erantzun eta zalantzak argituko dira.

Bardintasun politiketan bide luzea Udalak
Areatzako Udalak ibilbide luzea

dauka bardintasun politikei jakokienean. I. Bardintasun Plana 2005ean egin eban Areatzak; 2010ean, bigarrena eta 2014tik, 2021era Bigarren Planaren luzapena egon da indarrean. Martiaren 17an, Bardintasun Plan barria egiteko ordura arteko ibilbidearen Diagnostikoa aurkeztu zan eta han ikusi zan Bardintasun Plan barri baten beharizana. Horretarako, dirulaguntza eskatu behar da aurten eta datorren urtean plan barria egiteko asmoa dago. "Aurten, bardintasun programazino bat egin dogu, Emakunderen esparru barruan. Eta hor atal bat langileen formazioa da" azaldu

deutso BEGITURI Maitane Diez zinegotziak. Izan be, udal langileen prestakuntzea ezinbestekoa da herritarrei bardintasunean oinarritutako arreta emateko.



IGORRE

Euskereak batzean gaitu lelopean ospatuko dau Igorrek Inbiu hilaren 18an

"Euskereak batzean gaitu" eta "segurtasun distantziak ez gaizala euskeratik urrundu" dira aurten Igorreko Euskera Batzordeak aukeratu dituan leloak Inbiu egunerako.

Erredakzinoa

COVID-19a dala-eta hartutako neurriek baldintzatu arren, jai giroan egin gura dabe aldarrikapena, eta horretarako musikea egongo da herrian eta etxeetako balkoieta euskerearen aldeko banderolak ipintera animau gura ditue herritarrek.

Garben, Olabarrin, Goiko plazan, Beheko plazan eta erdigunean, megafoniak, musikea, bertsoak, umeek eskolan egindako kantuak eta beste hainbat gauza zabalduko ditu eguna girotuteko. Igorreko euskerearen jai eguerdian hasiko da, 12:30ean, Panpotx Kultur Elkartearen umeentzako tailerrakaz. Gaztetxe ondoko landetan, eszenalekua, mikrofonoa eta kamarea egongo dira eta 12:30etik aurrera, familiak, lagunek, kuadrillek edo norbanakoek euskerearen aldeko mezu bat grabau ahal izango dabe. Mezurik bitxiak saria izango dau. Ondoren, umeek eskolan prestatutako kantuak abestuko ditue.

Norberak bere bazkaria eroan behar dauan arren, bazkarirako mahaiak eta aulkiak egongo dira gaztetxe ondoko landan eta 14:30ean da hitzordua batera bazkaltzeko. Bazkalostean, zuzeneko musikea ipiniko dau Amaiur Irazabal igorretarrak eta Izaro Mazo billaroztarrak osotzen daben Lanbroa taldeak.

Urri lehenengoak 18, zapatua
12:30ean, Panpotx Kultur Elkartearen eskutik, umeentzako tailerrak. 12:30etik aurrera, mezuak grabau. Ondoren umeak kantari izango dira. 14:30ean, bazkaria (norberak berea) eta bazkalostean Lanbroa taldea.



Igorreko eskolako umeek egindako irudi bat.

ARANTZAZU

Umeek izena emon beharko dabe ludotekan parte hartzeako

Hilaren 10ean zabaldutako ebazan atek Arantzazuko ludotekeak COVID-19a dala eta, arau barriakaz.

Erredakzinoa

Holan, oingo ikasturtean, ludotekan egoteko izena emon behar dabe umeek eta talde txikiak egingo dira, txanda bitan. Izena emoteko atzen eguna urri lehenengoaren 17a izango da, goizez udaletxean.

Ludoteka zerbitzua barikuetan izango da Zaztarrak taldearen eskutik. Txanda bi egongo dira eta bakotxean 12 ume egongo dira gehienez. Lehenengo txandea, 2013 eta 2016 bitartean jaiotakoentzat, 17:00etatik 18:10era izango da; eta bigarrena, 2009

eta 2012 bitartean jaiotakoentzat, 18:20tik 19:30era arte. Ludotekara doazen umeen erregistroa jasoko dabe, COVID-19 agerraldi bat egon ezker, jarraipena egiteko. Lehen Hezkuntzako umeentzako maskarea derrigorrezkoa da ludotekan; ez ordea, Haur Hezkuntzakoentzat.

Erabiltzaileen familiak ezin izango dira "inoz" ludotekan sartu eta sarreran "osasun neurriak" hartuko dira: "tenperatura hartzea, eskuen garbiketea eta zapaten desinfekzioa (zapatilak sarreran itxi)" hain zuzen be.



LEMOA

Alexandru Ionita ez dala errekupea esan dabe Gurutzetako medikuek

Zornotzan jipoitutako Lemoako gaztea ez dala osatuko esan eutsan Gurutzetako Ospitaleko mediku taldeak familiari.

Erredakzinoa

Alexandru Ionita Lemoako 23 urteko gaztea koman dago garagarileko 24 eta 25 arteko gauean hogeitatu lagunek burua apurtu arte jo ebenetik, eta medikuek dinok ez daukela konortea berreskuratuko daukazan lesioek ez daukielako bueltarik. Gurasoek, Errumania eta Suitzako medikuen eretxia be eskatuko dabe. Ertzaintzak hamasei erasotzaile

atxilotu ebezan hurrengo egunean, 8 edadez nagusi eta beste 8 adin txikiak.



ARTEA

Inguruan ekoiztutako produktu eta artisautza merkadua egongo da hilaren 18an Artean

Erredakzinoa

Gorbeialdek kudeatutako merkadua egongo da Artean hilaren 18an, 10:00etatik 14:00etara. Bertan, inguruko ekoizleek, 22 salmahaitan ipiniko dabez euren produktuak salgai; seitan artisautzarako, eta gainontzekoetan jatekoak. Artisautzako salmahaiak frontoian egongo dira eta besteak, kanpokaldean, udaletxetik Ekomuseora doan bidean.

Areatza, Arte, Igorre, Orozko eta Urduñako ekoizleek, ogia, pastelak, gaztaiak, gildak, pateak eta beste produktu asko ekarriko ditue Artean saltzeako. Areatza, Arte, Zeanuri, Elorrio eta Bilboko artisauak bariz, beste batzuen artean, zidarra, zeramikea, motxilak eta zaku termikoak eukiko ditue salgai.

Arrastian musika ekitaldiak

Arrastian musika ekitaldi bi egongo dira. 18:00etan, Ein Go taldeak, Euskal Herrian zuztututako abestiak joko ditu musika tresna tradizioalakaz Ekomuseoaren plazan. Iluntzean, 21:00etan, Bitartean folk taldeak, Ttara jantza taldeagaz, *Denak ez ziren indiano* ikuskizuna eskainiko dau Arteko plazan. Ez da izenik emon behar alde zurretik eta sarrera libre izango da aforoa bete arte.



LEMOA

Lemoako Kotxepin Kultur Etxeko fatxadako harriak apurtu ditue

Aprilaren 24an estreinau eban Lemoak Kotxepin Kultur Etxea, prozesu luze baten ondoren. Izan be, lan saio asko behar izan ziran etxearen espazioa lemoaztarren kultura preminetara moldatzeko.

Erredakzinoa

Diseinua, materiala eta abarrak be, prozesu parte-hartzailean jasotako kezka eta preminei erantzuteko aukeratu ziran. Abuztu amaieran, Kultur Etxeko fatxadako 63 harri apurtuta egozan; udan zehar baten batek edo baten batzuek gurata apurtuta.

Fatxadeak estaldura sistemarik onenetako dauka eta 63 harri bari ipintek kostu ekonomiko handia dakar. "Fatxada aireztatua da, hareharri naturalez egina. Fatxada honegaz aire kamara bat sortzean dogu kanpoko eta barruko azalaren artean, estankoa ez dana, espazio hori aireztatzea ahalbidetzen dauana. Fatxada-sistema

horrek kondensazioak saihesten ditu eta plakatzearen junturen artean sartu daitezkean ur-iragazketak ezabatzen ditu. Fatxada iraunkorra da, estaldura-sistemarik onenetakoa, bai eraikuntza barietan, bai birgaitzeetan, eta ez dauka ia mantenimenturik behar" azaldu eban Udalak bere boletinean.

Kultur Etxea herritarrek gozatzeko espazioa izanda, Udaletik ez dabezala holango ekintza bandalikoak ulertzen dinoe, ekonomiari zein espazioaren erabilereari jagokionean, lemoaztar guztien kalterako diralako.



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
 LANBIDE HEZKESAKO IKASTETXE INTEGRATUA

Eusko Jaurlaritzak
GOBIERNO VASCO
 ENPLEGUEN ETA LANBIDEAREN DEPARTAMENTUA
 DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Hasiera 2021ean!!!

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK				
LANBIDE K.	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK				
OC21480072	Higiene eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan (MF1017_2)	70	Iraila	
OC21480023	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70	Urria	
OC21480024	Laguntza psikosoziala eta harreman eta komunikazio-arreta erakundeetan (MF1019_2)	130	Azaroa	
OC21480069	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitaria ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208)	370	Urria	
FABRIKAZIO MEKANIKOA				
OC21480025	Karbono-altzairuzko TIG soldadura (UF1626)	90	Urria	
OC21480070	Altzairu herdoilgaitzezko TIG soldadura (UF1627)	90	Azaroa	
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK				
Langabetuak (praktikak enpresan)				
21480020	Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa (IMAQ0108)	510	Urria	
21480019	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitaria ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208)	370	Urria	

Informazioa eta izen ematea: www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)

OHARRA: Taldeak sortu ahala, hasiko dira ikastaroak.

Urritxe auzunea, z/g - Tfno: 688 665 300 - 946 730 251
 48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
 e-mail: maranburu@fpzornotza.com - www.fpzornotza.com

IRUNE COSTUMERO

Irune Costumero: "Bide judiziala egiten urteak pasetan dira eta bitartean umea, nogaz dago?"

Epaileak, BFAko Haurren Arreta Zerbitzuetako langileak absolbidu ebazan prebarikazino, tratu txar eta lesino psikologiko akusazinoetatik, salatutako karguak ez ebazalako frogatutzat jo. Garagarriaren 21ean emon eban epaia Probintziako Auzitegiak, Sergio Murillo Bizkaiko Diputazinoko Gizarte Ekintza diputadua; Maria Antonia Giner, Haur Zerbitzuko Harrera eta Balorazino burua; Consuelo Alonso Haur Zerbitzuko burua eta Maika Urutxurtu gizarte langilea absolbiduz. Costumerok epaia errekurridu dau eta errekurriduko dau, bere esanetan, "justizia lortu arte".

2017ko abuztuaren 4an, Foru Agindu batez, alde zaureratik zaintza partekatua egon arren, Irune Costumero eta 5 urteko alabea banandu ebezan behin-behineko zaintza aitari emoteko. Horretarako, Haurren Arretako Zerbitzukoak Bizgarriren txosten baten oinarritu ziran. Han esaten zan amaren partetik guraso alienazinoa egoala. Aurtengo aprilean, Espainiako Kongresuak Indarkeriaren Aurrian Haur eta Nerabeen Babes Osorako Legea (Lege Organikoa 8/2021) onartu eban eta lege horrek Guraso Alienazino Sindromea (GAS) galarazoten dau. Izan be, GASak abal zientifikorik ez dauka eta Podere Judizialeko Kontseilu Nagusiak ez erabilteko aholkatu arren, zaintza sententzietan erabilten segiduten zan. EAEn erabilten dan Balora protokoloan be agertzen da existiduten ez dan sindrome hori.



Erredakzinoa

Absolbidu egin dabez Foru Aldundiko Haur Arretako Zerbitzukoak, espero zenduan sententzia hori?
Sententzia, zuk esandako moduan, absoluzinoa izan da. Horrek ez dau esan gura errudunak ez diranik. Justizia oso patriarkala dala eta poderearen menpe dagoala danok dakigu. EAJ-PNV be hor dago eta podere handia dauka, eta hor erakutsi dau bere poderea leku guztietan dagoala, ez bakarrik BFAko Haurren Zerbitzuan, baita Justizian be.

Epaiketearen lehenengo egunetik, nik banenkian zer pasauko zan. Izan be, lehenengo egunean, nire abogaduak errefusau egin eban gela, ze gela osoa, hiru magistraduak, birritan aitaren umearen kontrako tratu txarrak zarratu ebezanak ziran. Beste gela inpartzial bat eskatu eban, baina fiskalak "aurreran" egiteko esan eban. Eta fiskalak Guraso Alienazino Sindromea egon badagoala esan eban epaiketearen zehar.
Pentsetan dot guztia alde zaureratik prestatuta egoala. Konfiantzazko tratua egoan fiskala,

akusaduen defenza eta epaileen artean. Magistraduak eta fiskalak saiatu ziran akusaduen kontrako lekukoen testigantzak ebagiten. Jazarpena izan zan, berbiktimizazinoa. Hori ez dot neuk bakarrik ikusi, kazetari asko egon ziran han eta fiskalaren inpartzialtasunaren gaineko zalantzak agertu ebezan.
Errekurriduko dozu, orduan?
Bai, errekurridu dogu. Urri lehenengoaren 6an amaitu zan errekurriduteko epea eta. Eta nire aldetik, jarraituko dot errekurriduten justizia lortu arte. Egiak bide bakarra dauka eta nik daukat egia.

Aita batek esaten dauanean "hemen ez da ezer gertatu" eta aitari sinisten jakonean eta umeari ez, umea zokoratuta geratzen da eta makinaria guztia mobiduten da umeari eretxia aldatu arazoteko

Ez bakarrik nik, nire umeak be bai. Ze azken finean, behin eta barriro ikusi genduna epaiketan izan da, umea ostonduta geratu zala; hau da, ez zan existiduten berari pase-tan jakona, sentiduten dauana... desagertu arazo gura izan eben behin eta barriz. Adibidez, Osakidetza-ko tratu txar protokoloak hor dagoz, baina inork ez eban ezer esan horren gainean.
Komeni ez jakien guztia baztertu eben aita oso ona dala esateko, eta jakina! gauza oso ilogikoak gertatu dira. Esate baterako esaten dabe ez dagoala ezer aitaren kontra eta zaintza partekatua egoala. Baina zaintza partekatu hori amagaz zan. Zergaitik kendu umea amari, aitari emoteko? Umeak tratu txarrak jasoten dituala esan dau eta Osakidetza be tratu txar protokoloa zabaldu dau behin baino gehiagotan, epaiketan, zergaitik emon jako hainbeste inportantzia Diputazinoko jenteari eta ez jako emon Osakidetza-koari? Zergaitik ez jako emon garrantziarik 3 aldiz protokoloa zabaldu izanari? Eta zergaitik jo dabe konponbiderik onena dala umeari ama kentzea? Lau urtez ama bera eta amaren inguruko mundu hori umeari kentzea?
Horren guztiaren inguruan GAS ideologia dago, baina harago doa. Ze Balora aplikau behar daben arren, Baloraren barruan ez dago

idatzita umeari kendu behar jakonik ama, 4 urtetan zehar gauak, astegoienak, urtebetetzeak eta oporrak ama barik egon behar danik, ama bijilau egin behar danik eta umea kendutakoan erresistentziarik agertu ezkeror, ama hori zigortu behar danik.

Dinozu justizia lortu arte errekurriduko dozula, baina prozesu luze eta gogorra da. Eta bitartean, umea hazten doa.

Bai. Tortura instituzionala da, ze justizia oso motela da. Eta bitartean, dirua gastatzeaz aparte, umea hazi eta haziz doa.

Epaiketa horrezaz gainera, urtaillean be, beste epai bat ateratzen, igazko 2020ko abenduan beste epaiketa bat euki genduan eta. Abendukoa, Kode Zibileko 158 artikulua dala-eta, presako kaute-lazko neurrien gainekoa izan zan. Oin arte, dana paralizauta egon da, epaiketa penala amaitu arte ez dalako zibila altxatzen. Baina penala errekurridu dogu eta atzera bota ezkeror, gora joko dogu. Orduan hor daukaguz urteak eta urteak zibila altxatzeko. Horregaitik, bitartean, presako kautelazko neurriena sartu genduan.

Epai horretan, epaileak aitari emon eutsan zaintza osoa behin-behinean, baina astegoienez batzuetan eta oporretan nigaz egongo da umea. Horregaitik euki dodaz aurtun umeagaz oporrak, ze lau urtetan ez dodaz euki. Baina hori be errekurriduta dago. Orduan, Audientziak hori ebazten dauanean joango gara beste auzibide batera. Auzibide hori Barakaldon dago, ze umea kendu baino arinago sartu eban aitak, GASa argudiatuta, zaintza osoa eskatuz. Eta holan urteak pasau eta pasau eta pasau... Eta bitartean... hori da umea torturatzeke beste modu bat, ze 3 urtetik dabil esaten aitak jotzen dauala eta ez dauala gura aitagaz bizi. Bederatzi urte eta erdi daukaz, gitxi barru 10 beteko ditu eta jarraitzen dau zurrumbilo horretan.

Hau, ume batentzako tortura da. Aita batek esaten dauanean "hemen ez da ezer gertatu" eta aitari sinisten jakonean eta umeari ez, umea zokoratuta gertatzen da eta makinaria guztia mobiduten da umeari eretxia aldatu arazoteko. Esaten deusie "txarto zagozala? Zelan? Aitak jotzen zaituala? Ez, ez hori ez da pasetan". Eta horrek umeari lesino psikiko eta psikologiko oso potenteak eragiten deusaz. Umeak ezin dau kudeatu pasau jakon guztia laguntza barik. Nire alabeari, ama kendu deusie eta egundoko mina egin deusio horrek, eta bere izakerea arriskuan dagoala ikusten jako.

Epaiaketeak izan eban erreperkusino politikoa, ezta? Ze

balorazino egiten dozu?

Bai, erreperkusino politikoa euki dau eta oso agerikoa izan da Irene Montero (Unidas Podemos) eta Aitor Estebanen (EAJ-PNV) arteko eztabaidea. Hor be egon zan Mertxe Aizpurua (EH Bildu)...

Nik hor gauza bi ikusten dodaz. Alde batetik, oso argi geratu zan zergaitik EAJ-PNVk ez eutsan aldeko botoa emon Espainiako Kongresuan haur eta nerabeen babeserako legeari. Ze hasikeran Foruak ipini ebezan atxakia moduan baina sano argi geratu zan epaiketa ostean, lege horrek kolokan ipinten ebala EAEko haur arreata zerbitzuen lana. Izan be, lege horrek esaten dau GASa ez dala existiduten. Eta hori ez jako interesetan EAJ-PNVri, ze orduan desmontau egin beharko leukelako dana eta Balora txarto egin da dagoala onartu, Baloran GASa dagoalako.

Ni ez naz muntaia honen biktima bakarra. Nik arpegia emoten dot, publikoa naz baina ez da normala estaduan 50.000 ume tutelau egotea. Negozio handia dago horren inguruan.

Ikusi dodan beste gauzea izan da, oso ondo dagoala gaia saltsa politikoan sartzea, baina ezin dala horretan geratu. Niri ez deusta balio. Eskertzen dot, eta modu personalean be esan deutset Aizpuruari, Monterori eta alde egin daben guztiai, baina ez da nahikoa, ze hau ahaztuta dago oin eta ez da ezer konpondu. Nazino Batuetako errelatoreak abisua emon eutsan Espainiako Gobernuari, eta zer egin dabe?

Ni ez naz inoz sartu politikan, baina ikusi dodana epaiketan ez da normala. Umeen eskubideen kontua, Giza Eskubideen kontua da, eta ez politika kontua. Politikea politikea da eta Giza Eskubideak, Giza Eskubideak dira. Mundu guztiak eta ume guztiak euki behar dabez. Ume bateri eskubideak kentzea torturatzea da eta tortura hori ikusteko ez gara beste herrialde batzuetara joan behar, ze ume asko dagoz torturata gurean, etxe barruan torturata, nire umea legez.

Bitartean, aita horreek ondo ikusten ditu gizarteak askotan: amak izaten dira "arraroak" ez daukielako irribarre bat jenteari eskaintzeko; aitak barriz, tabernara joan eta edonori kaina bat pagetako prest egoten dira. Hori da desmontau behar dana. Igorren ikusten diran kartel batzuk, tratutxarrak emoten dauan gizona, guapoena, sinpatikoena... izan daitekela adierazoten dabenak. Aita guztiak ez dirala onak.

Nire umea harrapatuta dago. Errekurriduten eta bide judiziala egiten urteak pasauko dira eta bitartean umea... nogaz dago?



URRI LEHENENGOAK 18

12:00ETAN Panpotx
(umeentzako tailerrak)

12:30ETIK AURRERA
Erdu familiagaz, lagunakaz, kuadrilleagaz zure mezua grabetan.
Mezu bitxienak saria eukiko dau

BAZKALDU AURRETIK
eskolako umeak kantari

14:30EAN
Bazkaria norberak berea.*

BAZKALOSTEKO KAFEAN
LANBROA taldea kantari

*Ekintza guztiak Gaztetxe ondoko landan. Bazkarirako mahaiak eta aulkiak bertan egongo dira.

Girotu daigun eguna

Garrantzitsuena euskeraz egitea

Euskereak batzean gaitu

Musika herrian zehar

Banderolak balkoietan

Segurtasun distantziak ez gaizala euskeratik urrundu

MENDIA

Manaslu neguan igoteko beste saiakera bat egingo dau Txikonek

Pasau dan neguan lortu ez ebana, datorren neguan lortzean saiatuko da Alex Txikon alpinista lemoaztarra. Aurreko espedizinokideak izango ditu lagun Manasluko (8.163 m) tontorra neguan zapaltzeko beste saiakera honetan.

Erredakzinoa

Eguraldi txarrak ez eban aukerarik emon pasau dan neguan. Bertan egoteko baimena amaitzen jakien, hurrengo egunetarako eguraldi txarraren aurreikuspenak egozan, eta pilotutako edurrak ezinezkoa egiten eban neguan tontorra zapaltzea. Horregaitik, Alex Txikonek, Iñaki Alvarezek, Chhepal Sherpak, Gelum Sherpak eta Namja Sherpak kanpalekua demontau eta buelta emon behar izan eben zezeilaren 28an, zazpi astetan lan egin ostean. Egun batzuk lehenago joana zan Simone Moro, tontorra zapaldutea ezinezkoa zala eretxita. Ha-ta guzti be, bitan igon ziran 7.000 metrora eta han 3. kanpalekua ipini eben. Han itxitako materiala ezin izan eben jaso. Datorren neguan, arinago ibiltea

espero dau lemoaztarrak, pendiente itxitakoa amaitu ahal izateko. Izan be, pasau dan neguan gauzak ondo joan ziran arren, atzenengo egunetako haizeak ez eutsien itxi amaitzen gura eben moduan. Oingoan lortzeako "arinago" ibili beharko dirala esan dau Txikonek Oxigeno agerkarian. Izan be, honegaz amaitutzat emon gura dauz neguko espedizinoak eta beretzat garrantzi handikoa izango litzateke tontorra zapaldutea.



MENDIA

Lemoatx Trail lasterketarako izen emotea zabalik



Erredakzinoa

Bizkaiko mendi lasterketarako txapela jokatu da zemendiaren 21ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Lemoatx Trail mendi lasterketan. Bertan parte hartzeako, izen emotea urri lehenengoaren 15etik

zemendiaren 18ra arte egongo da zabalik, rockthesport.com eta kronoak.com webguneetan. Lasterketa bi dagoz aukeran; bata 24 kilometro ditu eta besteak 16 kilometro eta izen emotea 20 euro eta 15 euro kostetan da hurrengo hurrengo.

FUTBOLA

Arratia lidertzan dago liga hasikera honetan

Nazional mailako lehen mailako bigarren taldean dago Arratia eta ezin hobeto emon deutso hasikerea denporaldi barriari.

Erredakzinoa

Arratia futbol taldeak 1-0 irabazi eban Añorga taldearen kontra, hi-

laren 11n Igorreko Urbietako zelaietan jokatu da ligako bigarren partidua. Lehen zati sano bardinduen ostean, bigarren zatian arratiarrak



Añorgaren kontra Igorren jokatu da ligako bigarren partidua.

PELOTEA

Ez da arratiarrik heldu Zornotzako VI. Master Kaiola Txapelketako finalera

Erredakzinoa

Xabier Rekalde dimoztarra izan da txapelketa honetan urrunen heldu dan pelotaria. Hilaren 11n, 22-21 galdu eban Igotz Bilbaoren kontra finalaurrekoan. Hainbat izan dira Zornotzako txapelketan parte hartu daben pelotari arratiarrak. Amaia Aldai dimoztarra, Ainhoa Ruiz de Infante Txumulugetakoa, Danel Beitia, Beñat Etxeita, Imanol Urigoitia eta Eneko Artaraz zeanuriztarrak, Joko Alaikoak eta Xabier Rekalde dimoztarra, Txumulugetakoa. Andrazkoetan, hilaren 5ean jokatu eban Txumulugetakoa Ruiz de Infante Leire Garaien kontra final-laurdenetan eta 22-10 galdu eban. Holan Otxandio pelotaria Zornotzako VI. Master Kaiolatik kanpo gelditu zan. Aldai dimoztarra be kanpoan gelditu zan Laia Salsamendiren kontrako partidua galdu ostean.

PELOTEA

Amaia Aldai-Andrea Capellan bikotea San Mateo Txapelketako finalerako sailkatu da

Erredakzinoa

Hilaren 12an sailkatu ziran, Miren Larrarte eta Nora Mendizabaleri, Baños de Rio Tobiako plazako frontoian 22-13 irabazi ostean. Hilaren 25ean jokatu dabe finala Logroñoko Adarraga pelotalekuan, Najerako finalaurrekoa irabazten dauan bikotearen kontra. ETBn zuzenean eta Errioxako Telebistan diferiduan ikusi ahal izango da partidua. Finalerako pasea lortzeako partidua nahiko azkarra izan zan. Lehen tantua urdina izan zan arren, dimoztarrak eta nafarrak aurrea hartu eben laster (6-2). Amaia Al-

gailenduz joan ziran jokoa eta partidua amaitzeko minutu gutxi- ren faltan Arrate Arrietak arratia- rren gola sartu eban. Ligako lehen partidua oster- a 0-11 irabazi eban Arratiak hilaren 5ean Santanderren Nueva Mon- taña talde kantabriararen kontra. Aurkari gogorak ditue aurt- en, Real Sociedad B, Athletic C, Osasuna B, besteak beste, baina aurt- en, igaz ez bezala, sano ondo hasi dabe denporaldia arratiarrek. Partidu biren ostean Arratia li- dertzan dago ligako partidua biak irabazita, 6 puntugaz. Datorren partidua Oiartzun taldearen kontra jokatu dau Arratiak hilaren 18an, arrastiko 17:00etan, etxetik kanpo.

daik erraztasun handiz jokatu eban, aurkariak ondo mobiduz eta bikain errematauz eta Nora Mendizabalek ezkerreagaz izan ebazan arazoei etekina atera eutseen gorriek. Par- tiduari bikain eutsi eutsan Capella- nek be, eta finalean izango dira. **San Mateo Txapelketea** Emakume Master Cup zirkuituak, Errioxako Gobernuaren San Ma- teo-Laboral Kutxa Sari Nagusiaren Txapelketearen lehen edizinoa sartu dau. Lehiaketeak maila bi daukaz, bata pelota goxoko pro- mesena, eta bestea, eliteko pelo- tarietarako pelota mistoagaz.



Amaia Aldai.



Gorbeia Suzien mendi lasterketea zuzenean emongo dau ETB1ek

Urri lehenengoaren 26an, Gorbeia Suzien mendi lasterketea jokatu da Zeanurin. Lasterketea zirkuitu bitan dago, Golden Trail National Series estatu mailakoan, eta ISF, International Skyrunner Federation-eko Munduko Kopan, hain zuzen be. Herrialde askotako seirehun lasterkarik emon dabe izena 31 kilometroko lasterketa honetan parte hartzeako, tartean Euskal Selekzinokoek. Horrezaz gainera, beste lasterketa laburrago bat be egongo da, 21 kilometrokoa. Munduko Kopako lasterketea zuzenean emongo dau ETB1ek eta *streaming* bidez be ikusi ahal izango da sare sozialetan.



Erredakzinoa

Gorbeia Suzien Skyrace lasterketa ofiziala, goizeko 10:00etan hasiko da Zeanuriko herrigunetik eta San Justoko ermitara igoko da. Aldapa handiak izango ditu hasikeratik, beraz. Ziburur, Lekanda eta Arrabatik pasauta, Gorbeia tontorrera helduko dira partaideak. Azero ingurura jeitsi eta barru be igon beharko dira Aldaminera. Handik herrira jeitsiko dira helmugara ailegetako. Lasterketeak 2.400 metroko desnibel positiboa dauka. Punturik altuena Gorbeia tontorra da (1.481 m) eta baxuena, herrigunea (243 m). Egun berean, hilaren 26an, 11:30ean hasiko da 21K lasterketea. Lasterketeak 21 kilometroko ibilbidea eta 1.200 metroko desnibel positiboa dauka. Lasterketa honetako partaideek ez dabe Gorbeia tontorra zabalduko, punturik altuena Egriñaon (1.200 m) izango dabe eta.

Berrehun lagunek emon dabe izena 21Kn parte hartzeako.

Partaideak

2020ko urtailean zabaldu zan izen emotea, egin zan zozketea eta ezin izan zanez egin, COVID-19a dala-eta hartutako neurriek ez ebelako ahalbidetzen, aurten mantendu dabez igazko dorsalak; hau da, zozketan igaz tokau jakienak izango dira parte hartuko dabenak. Aurreko urteetan andra askorik ez ebela parte hartzean ikusita eta andren parte hartzea bultzatzeko, gorde egin dira dorsal batzuk andrentzako, aurreko urteetan halako bi, hain zuzen be, 40tik 80ra pasauz, andrazkoen dorsal kopurua. Mundu guztiko elite korrikariak dira egotekoak Zeanurin. Korrikariak Estatu Batuetatik, Norvegiatik, Kolonbiatik eta beste herrialde askotatik datoz. Afrikatik be bai. "Kenian akademia bat dago korrikariak mendi laster-

ketetarako prestetako. Ez daukie esperientziarik horretan baina oin dagoz prepetan Europara etorteko korrika egiten. Suerteak daukagu. Europan, Kanarietan bakarrik egin dabe keniar honeek lasterketa bat eta bigarrena gurea izango da" azaldu deutso BEGURI Ziemkiewicz. Euskal Herriko mendi lasterketako selekzinokoek, Kataluniakoek, Andorakoek... Munduko Kopan 10 lehenengoen artean egondako Oihana Azkorbebeitiak, Oihana Kortazarrek eta beste izen ezagun askok aurten Gorbeia Suzien lasterketan parte hartzeako asmoa konfirmatu deusie antolakuntzeari. Batzuk aitatzearen, Denisa Ioanela Dragomir, Virginia Perez Mesonero, Rosanna Buchauer, Anne Cheptanui, Toni McCann, Mayi Mujika, Onditz Iturbe igorreztarra, Julia Font, Andrea Garay, Imma Parrilla... eta Asier Larruzea, Pere Rullan, Zaid Ait Malek, Marc Casal Mir, Oscar Casal Mir, Ben Kimtai, Alejandro

Forcades, Cristobal Adell, Samuel Dávila, Jonatan Cuesta, Ander Iñarra, Damien Humbert eta Sebastian Ljungdahl.

Mendi lasterketea baino gehiago

Mendi lasterketea baino gehiago izateko bokazioagaz sortu zan Gorbeia Suzien eta bere izakereari eutsi gura izan deusie antolatzaileek. Holan, barikuan, hilak 24, *Corriendo por la vida* Juan Dualen berbaldiagaz hasiko dira ekintzak IKEn. Dual mendi lasterkariak bere historia kontauko dau, urdail, kolon eta ondeste barrik, mendi eta bidezidorretatik galapan egiten, topau dau modua gaixotasuna erateko. "Abentura, emozino eta umore onez" betetako alkarizketea izango dala agindu dau Dualek.

Umeentzako lasterketea zapa- tu goizean izango da; bazkalos- tean edo arrastian barriz lasterka- rientzako azalpen tekniko edo *briefinga* eta horren ostean Tio Teronen Semeak taldeak jantza ikuskizuna eskainiko dau Zeanu- rin. Aurkezpen teknikoan, ibilbi- dea 3Dan eta bideo batzuk ikus- teko aukerea egongo da. Baita parte hartuko daben korrikarien aurkezpenak be. Bitartean taloa jateko aukerea egongo da edo- eta beste zeozer, janaria saltzean dauan furgoneta bat be egongo dalako.

Hurrengo egunean, domekan, izango dira lasterketa nagusia eta 21 kilometrokoa. Egitarau osoaz gozatu ahal izateko, akanpada- rako gune bat egokituko dau antolakuntzeak. Izan be, horixe da lasterketa honen berezitasuna "lasterketatik aparte programa bat daukala. Kanpotik jente asko etorten da eta gura dogu eroan deiela esperientzia bat, gure kul- tura apur bat ikustea. Eta aurten be horrer eutsi deusagu" azaldu deutso BEGURI Ziemkiewicz.

Txahala errea

Lasterketearen ostean, 1.000 personentzako bazkaria egoten zan lehen. Bezperan txahala erre- ten egoten zan plazan eta egun horretan lasterkariak eta euren lagunak alkarregaz bazkaltzen eben txahal hori danon artean. Aurten, nahiz eta COVID-19aren neurriak dirala-eta, 1.000 perso- nentzako bazkaria ezin dan an- tolatu, txahala erre egingo da eta *take-away*, hartu eta eroan, erako formatuan bananduko da okelea, gero, bakotzak bere furgonetan edo aukeratuten dauan lekuan jateko.

Egitaraua

Urri lehenengoak 24, barikua
19:00etan, Juan Dualen berbaldia eta ikus-entzunezkoa *Corriendo por la vida* Igorreko Kultur Etxean.

Urri lehenengoak 25, zapatua
11:00etan, umeen lasterketarako izen-emotea.
12:00etan, umeen lasterketea- ren urtekerea.
13:00etan, umeentzako herri- kirolak.
17:00etatik 20:00etara, dorsal banaketea.
18:00etan, *briefinga*, hitzaldi tek- niko.
19:00etan, Tio Teronen Semeak- en *Freshcool* jantza ikuskizuna.

Urri lehenengoak 26, domekea
08:00etatik 09:30era, dorsal ba- naketea.
09:30ean, 31K material ikuskapena.
09:45ean, 31 kilometroko laster- ketako partaideak urtekeran.
10:00etan, 31K lasterketearen urtekerea.
11:00etan, lasterketa laburreko lasterketarien material ikuskapena.
11:15ean, 21K lasterketako par- taide guztiak urtekeran.
11:30ean, 21K lasterketearen urtekerea.
14:30ean, sari banaketea.



KOTXEPIN

Umeentzako ikuskizun bi Kotxepin Kultur Etxean

Urri lehenengoaren 18an, 18:00etan, Anita Maravillas txotxongilo konpainiak *Jon Braun* antzezlan eskainiko deutse lau urte baino gehiagoko umeei, eta hilaren 30ean, ordu berean, Alberto Bargos ipuin kontalariak, *Denok berdinak, denok desberdinak* kontaketea egingo dau 8 eta 12 urte bitartekoentzat. Ikuskizun biak doban dira.

Erredakzinoa

Jon Braun berba bako txotxongilo *western* bat da. Indiar herritxo baten bizi dira Jon Braun eta bere arreba nagusia Malintxe. Txotxongilo istorio honetan, Malintxe atrapa egiten dabe eta neba-arrebak banandu egiten dira. "Malintxe-gaz, andren gainean egiten dogu berba, kolonizazioan eta gerran izan eban rolaren gainean, hain zuzen be. Ipuin honetako heroina bera da, bere askapenaren subjektu aktibo gisa agertzen dana". Neba txikia barriz, antiheroi mai-tagaria da, zoritxarrei ilusinoz

beteta aurre egiten deuten ume torpe eta jostalaria.

Ipuin kontaketea

Alberto Bargos ipuin kontalariak *Denok berdinak, denok desberdinak* ipuin kontaketa saioa eskainiko dau Lemoan. Saio honetan, ipuin eta leienden bidez, mundua osotuten daben personak aldi berean bardinak eta desbardinak dirala adierazoko da: persona bakotzak bere nortasuna daukala baina danok "bihotz bat gordetzen dogula gure barruan eta horrek, beste gauza batzuen artean, bardin egiten gaituala" hain zuzen be.



UDAKO EKINTZAK

Idoia Asurmendik kontzertua emongo dau Goiko plazako frontoian Igorren

Idoia taldeagaz emongo dauan kontzertua izango da Uda Kulturalaren barruan egingo dan atzen jardueria Igorren, kontzertua bagilean emotekoa zan arabarra baina atzeratu egin eben.

Erredakzinoa

Bertsoak, musikea, jantza bertikala eta beste jarduera batzuk egon dira garagarri, abuztu, eta urri lehenengoan Igorren. Uda Kulturalaren atzen emonaldia osteria urri bigarrenaren 2ko Idoia Asurmendiren kontzertua izango da, udaletxeko ondoko frontoian eguraldi ona egiten badau eta ostean Kultur Etxean izango dana 20:00etan. Idoia Asurmendi Aramaion 2000. urtean jaiotako abeslaria da. Txikitatik musikeari lotuta egon da eta 2020an banda bat sortzea ebatzi eban. 2021eko apirilean argitaratu eban bere lehen diskoa, *Ilun eta abar* izenekoa. Jazzaldian, Donostia Festibalean eta beste hainbat leku-

tan kontzertuak emoteko aukerea izan dau, artean diskorik argitaratu barik eukan arren.

Igorreko kontzertua ikusteko konbiteak igorrekultura.blogspot.com helbidean eskatu behar dira.



Idoia Asurmendi Areatzan.

KULTUREA

Bediako udaletxean dago ikusgai Victor Sarriugartek emondako margolana

Artabene baserriaren pintura bat emon deutso Sarriugarte pintoreak Udalari.

Erredakzinoa

Udaletxeko sarreran ipini eben garagarrilean 1,63 metro x 1,15 metroko koadrua. Egileak antzeko koadru bi egin ebazan, bata Bediako Artabene baserria irudikatzen dau eta besteak Ugaoko ermita bat. Artisteak udal bi horreei emon deutsez koadruok.

2019an, Sarriugartek Ugaon egindako erakusketa baten egon ziran ikusgai margolan biak 14 hilabetez. Erakusketea amaitutakoan, koadru bakotxa jagokon herriari oparitatea ebatzi eban Sarriugartek. Harrera ekitalditxoan Aitor Sorriketa Bediako alkateak eskerrak emon eutsazan pinto-reari bediartzar guztien izenean.

Victor Sarriugarte

Victor Sarriugarte Larrinaga (Bilbo, 1944) pintore ezaguna, erretratu eta baserri giroko eta etnografia gaietan, mitoetan, ohituretan eta jantzi tradizioetan espezializauta dago. 1971n egin eban bere lehenengo erakusketea eta harrezkeroztik jarraitu dau erakusketak egiten.



Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Elexalde 10, Igorre
94 631 56 57/ 607 632 916 · arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritza Arratiako udal guztiek diruz lagunduta

IKASTAROAK

Arantzazuk, Areatzak, Dimak eta Igorrek hainbat ikastaro eskaini ditue

Erredakzioa

Aurreko zenbakian, Arteak, Bediak, Lemoak eta Zeanurik eskaini dituen ikastaroen barri emon genduan; oingoan, Arantzazun, Areatzan, Diman eta Igorren eskaintzen diranak dakarguz.

Arantzazuko Udalak *Robotika, Yoga, Txikung, Mantenimentuko gimnasia, Entrenamentu funtzionala* eta *Zumba* ikastaroak eskaintzen ditu oingo ikasturterako. Izen emotea hilaren 30era arte egongo da zabalik eta urri bigarrenaren 4an hasiko dira eskolak. Arantzazun lehenengo aldiz eskaintzen da Txikung. "Diziplina txinatar honek osasuna era integralean hobetuteko osotuten daben praktikak jorratzen ditu; gorputza, burua eta energia kontuan hartzean dabenezan" eta aldi berean emozinoak orekatzeko lagungarria dala dioe Udaletik.

Areatzako Udalak eskaintza ugaria egin dau hastear dagoan ikasturterako: *Mantenimentuko gimnasia, Yoga, Pilates, Spinning, Crossfit* nagusientzat eta 12 eta 16 urte bitartekoentzat, *Eskulanak, Puntua eta kakorrazak, Euskal dantzak, Ehoziri lana* eta *Boxeo/kickboxing* ikastaroak, hain zuzen be. Taldeak 10 lagunekoak izango dira gehienez eta izena hilaren 24ra arte emon daiteke udaletxean. Izen emotean ikastaroaren erdia ordaindu behar da.

Diman, *Pilatesek, Yogak, Eskulanak, Entrenamentu funtzionalak, Zumbak* eta *3. adinean ariketa fisikoak* osotuten dabe ikastaro eskaintzea. Ikastaroa aurrera ate-

rateko gitxienez 8 personak emon behar dabe izena eta izen-emotea hilaren 30era arte dago zabalik. Hamabost persona baino gehiago be ez dira egongo taldean eta hori gertatu ezker, zozketea egingo da.

Igorrek ikasturteko lehen hiruhilerako eskaintzea aurkeztu dau. 7-12 urte bitartekoentzako akrobazia talde bi (barriak eta aurreratuak) egongo dira; 13 urtetik gorakoentzako *Akrobaziak, Txikung, Yoga*, hiru talde; *Hipopresiboak*, talde bi eta *Literatura tailerra*. Izen emotea hilaren 21era arte izango da ahal dala *ikastaroak@igorre.net* helbidera idatzita, bestela, 09:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara Kultur Etxean aurretik zitea hartuta. Taldeak sei lagunekoak izan behar dira gitxienez. Izena emoten dabenen kopuruak plazak gainditzen baditu zozketea egingo da.

Lemoa eta Zeberio

Euskera ikastaroak be eskaintzen dauz Lemoak. Erroldatuei Udalak %80a finantziauko deutse. Izena hilaren 30era arte emon daiteke 94 631 30 05 telefonoan edo *euskara@lemoa.net* helbidean.

Lemoako kiroldegia barriz, *Yoga, Pilates, Spinning, Aeromix* eta *GAP* eskaintzen dauz oingo ikasturteko lehen hiruhilekoan; hau da, urri bigarrenaren 1etik, abenduaren 31ra arte. Izen emotea kiroldegian egin behar da hilaren 24ra arte.

Zeberion be, udal dirulaguntzak dagoz Bizkaiko euskaltegietan euskera ikasteagaitik. Hilaren 30era arte eskatu daitezke udaletxean.



★ BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozusta poligonos, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



- Manikura
- Pedikura
- Depilazioa
- Solanum-a

Bihotza

Estetika Zentroa

Vika

Lehendakari Agirre, 2 beheko - 2D - Igorre - 689 796 062

HERRI BAT MERKATU BAT

Egindako erosketa guztiek tokiko produktoloteen zozketan parte hartuko dabe

Todas las compras realizadas participarán en el sorteo de lotes de productos locales

Arteako Merkatua

IRAILAK 18 SEPTIEMBRE

10:00-14:00

**Gorbeialde**
Landa Garapenerako Alkartasuna
Asociación de Desarrollo Rural

**Gorbeia**

**Bizkaia**
foru arduraduna
diputación foral

**Arteako Udala**

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA





**Filippini**
GENERATING SETS

**Nilfisk**

**JCB**

**MANITOU**
MANAGING YOUR WORLD

**CTX CONTAINEX**

**TeknoDikarika**
tecnología para todos

**HiKOKI**

**POWER PRODUCT
GENERERGY**

**MASTER**
ALUMINIO - HERRAMIENTAS

**INSTANT UPRIGHT**
easy to use - easy to store

AGENDEA

URRI LEHEN. 15
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Hilaren 30era arte, izen-emotea udal ikastaroetan. Ikastaroak: *Robotika, Yoga, Txikung, Mantenimentuko gimnasia, Entrenamentu funtzionala* eta *Zumba*. Udaletxean.

AREATZA

10:00etatik 12:30era edo 12:30etik 15:00etara, andren eta gizonen arteko bardintasunaren inguruko formazinoa Idoia Lekueren eskutik. Oinarrizko kontzeptuak eta sensibilizazinoa. Udaletxean.

Hilaren 24ra arte, izen-emotea udal ikastaroetan. Ikastaroak: *Mantenimentuko gimnasia, Yoga, Pilates* (talde bi), *Spinning, Euskal jantzak, Crossfit* nagusientzat eta 12 eta 16 urte bitartekoentzat, *Eskulanak, Puntua* eta *kakorratzak, Joskintzea, Ehoziri lana* eta *Boxeo/kickboxinga*. Izena udaletxean emon behar da.

ARRATIA

AEK. Izen emotea hilaren amaierara arte Igorreko Kubulu Euskaltegian bertan egin daiteke, telefonoz 94 631 56 57 edo 607 632 916 telefonoetan eta arratia@aek.eus helbide elektronikoa.

Berbalagun ekimenean parte hartzeako informazinoa 662 199 033 telefonoan, arratia.berba@aek.eus edo praktikatu.eus/blog/arratia helbideetan. Euskeraz praktikau gura izan ezker, eta nogaz praktikau euki ezean, izena emoteko aukerea.

ARTEA

Hilaren 22ra arte Udalak antolatutako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Udaletxetik pasau behar da eskaera orria betetera. Ikastaroak: *Pilates, Yoga, Zumba, Dantza modernoa umeak, Hirugarren adineko gimnasia, Euskal dantza umeak, Euskal dantza nagusiak, Eskulanak* eta *Arte aplikatuak*.

BEDIA

Urri lehenengoaren 17ra arte, Udan be irakurten. Bialdu argazki bat irakurten liburutegia@bedia.biz helbidera edo 636 325 578 WhatsAppera, "Udan be irakurten" esaldiagaz, izen-abizenak, argazkia noz eta non eginda dagoan eta argazkian agertzen dan liburua ea gomendatzeko dan esanez.

16:30etik 19:30era, hilaren 17ra arte, Udalak eratutako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Liburutegian. Ikastaroak: *bakotxean gitxieneko taldea osotu behar da aurrera egiteko. Egunra lantzen, Yoga, Pilates, Zumba, Korru dantzak, Koroa, Umeentzako euskal dantzak, Soinketa hipropesiboa, Ingelesa: mintza praktika, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrazketa, Judo, Eskulanak, Gimnasia erritmikoa* eta *Mantenu-soinketa*.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura. Aforo mugatua.

17:00etatik 19:30era, ludotekea zabalik, astelehenetik barikura. Aforo mugatua.

DIMA

Arratiako Ume-Gazteen 1. Argazki eta Bideoen Lehiaketea. Lanak bialtzeko azken eguna. Parte-hartzaile bakotxak Mb bateko erretratua eta gehienez, minutu biko bideo bana bialdu ahal dau jentilakdiman@gmail.com

com helbide elektronikora. Hurrengo datuak be agertu behar dira mezuan: Izen-abizenak, kontakturako telefonoa, herria eta adina.

Hilaren 30era arte, izen-emotea udal ikastaroetan. Ikastaroak: *Pilates, Yoga, Eskulanak, Entrenamentu funtzionala, Zumba* eta *3. adinean ariketa fisikoa*. Udaletxean.

IGORRE

Urri bigarrenaren 31ra bitartean Bonodenda kanpaina martxan. AMEk eta Igorreko Udalak bonu kopurua 1.800etik 3.000ra igon dabe. 16 urtetik beherakoak be bonuak eskuratu ahal izango dabez.

Ikastaroetan izen emotea zabalik hilaren 21era arte. 7 eta 12 urte bitarteko umeentzako *Akrobaziak*; 13 urtetik gorakoentzako *Akrobaziak, Txikung, Yoga, Hipopresiboak* eta *Literatura tailerra*. Izen emotea ahal dala ikastaroak@igorre.net-era idatzita egin behar da, edo bulego orduetan 09:00-14:00 eta 16:30-20:00 Kultur Etxean aurretik zitea hartuta.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean. Liburuak hartu, eskatu eta bertan irakurteko aukerea dago.

Zemendiaren 21ean egingo dan Lemoatx Trailen izen emotea zabalduko da rockthesport.com eta kronoak.eus webguneetan.

Hilaren 24ra arte, Lemoako kiroldegiko ikastaroetako izen emotea. Ikastaroak: *Yoga, Pilates, Spinning, Aeromix* eta *GAP*. Kiroldegian.

Udalak antolatutako euskera ikastaroetan izena emoteko epea zabalik hilaren 30era arte 946 31 30

05 telefonoan edo euskara@lemoa.net helbidean. Maila eta titulu ofizial guztiak.

ZEANURI

Udalak lan anitzetako ofizial lanpostua atera dau. Izena urri bigarrenaren 1eko 14:00ak arte arte emon daiteke. Hautagaiek iturgintza, zurgintza, enkofratze, igeltserotza eta lorezaintza ezagutzak izan beharko dabez. Xehetasun gehiago urri lehenengoaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean dagoz eskuragarri.

ZEBERIO

Zeberioko II. Argazki Lehiaketea. Ura eta egurra gai nagusi moduan hartzean dabezan argazki horizontalak, ez panoramikoak www.zeberio.net gunera igon edo info.zeberio@bizkaia.org helbidera bialdu behar dira. Gai bakotxean boto gehien jasoten dauzan argazkilariak bi personentzako bazkaria jasoko dau sari lez.

Hilaren 30era arte, Bizkaiko euskaltegietan euskera ikasteko dirulaguntzak eskatzeko epea udaletxean.

URRI LEHENENGOAK 17
ARANTZAZU

Ludotekan izena emoteko atzen eguna.

BEDIA

16:30etik 19:30era, Udalak eratutako ikastaroetan izena emoteko atzen eguna. Liburutegian.

DIMA

19:00etan, erromeria Aiko taldeagaz plazan. Euria bada frontoi txikian.

URRI LEHENENGOAK 18
ARTEA

10:00etatik 14:00etara, merkadua; 18:00etan, Ein Go kantuz; 21:00etan, Bitartean folk musika taldea eta Ttarla jantza taldearen *Denak ez ziren indiano*

ikusbizuna plazan.

AREATZA

20:00etan, Xuxurlaka taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

BEDIA

11:00etatik 13:30era, familiako urtekerea ondare historiko eta arkitektonikoa ezetuteko. Plazan.

IGORRE

Inbiu. 12:30ean, Panpotxen eskutik umeentzako tailerrak; 12:30etik aurrera, mezuak grabau, mezurik bitxienak saria; bazkaldu aurretik, eskolako umeak kantari; 14:30ean, bazkaria, norberak berea; bazkalostean Lanbroa taldea. Ekintza guztiak Gaztetxe ondoan. Bazkarirako mahaiak eta aulkiak bertan egongo dira.

LEMOA

18:00etan, *Jon Braun* Anita Maravillasen familientzako txotxongilo ikusbizuna Kotxepin Kultur Etxean. Izena alde aurretik emon www.lemoa.net udal webgunean.

ZEBERIO

07:30ean, zapatu-domekako mendi urtekerea Moncayoko Parke Naturalera eta Neilara. Austarri Mendi Taldeak antolatuta. Campiña (2.049 m) eta Moncayo (2.314 m).

URRI LEHENENGOAK 19
BEDIA

Kotxe bako eguna. 11:00etan, Bediatik zehar ibilbidea bizikletan; 12:00etan, Gymkana zirkuitua, bide segurtasunaren zirkuitua; 14:00etan, parte hartzaile guztien artean zozketea.

URRI LEHENENGOAK 20
ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, liburutegia zabalik.

URRI LEHENENGOAK 22
ARTEA

09:00etan, Mikel Deuna Arteako Jubiladuen Elkarteak antolatuta, ibilaldia. Plazea, Industrialdea, Ugarte zaharra, Larrazabal, Esparta, Goiko, Ibarretxe eta plazea.

URRI LEHENENGOAK 24
AREATZA

10:00etatik 12:30era edo 12:30etik 15:00etara, andren eta gizonen arteko bardintasunaren inguruko formazinoa Idoia Lekueren eskutik. Andren kontrako indarkeria. Udaletxean.

BEDIA

19:00etan, Bitartean folk taldearen kontzertua Plazan.

DIMA

10:00etan, Kirolguneak 2021 Parke Bio-osasungarriak. Izena alde aurretik emon udaletxean.

IGORRE

19:00etan, Juan Dualen *Corriendo por la vida* ikus-entzunezkoa eta berbaldia Lasarte Aretoan. Gorbeia Suzien.



URRI LEHENENGOAK 25
AREATZA

20:00etan, Viola Serra eta Asier Gallegoren kontzertua The Quiet Corner tabernan.

BEDIA

18:00etan, Elexalde, Bediako jubiladu eta pensionisten alkartearen Batzar Nagusiaren bazkideentzako deialdia frontoian.

DIMA

12:00etatik 15:00etara, andra sortzaile eta ekintzaileen azokea plazan.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 11:00etan, umeen lasterketarako izen-emotea; 12:00etan, umeen lasterketearen urtekerea; 13:00etan, umeentzako herri-kirolak; 17:00etatik 20:00etara, dorsal banaketea; 18:00etan, berbaldi teknikoa; 19:00etan, Tio Teronen Semeak taldearen *Freshcool* jantza ikusbizuna.

URRI LEHENENGOAK 26
ZEANURI

Gorbeia Suzien. 08:00etatik 09:30era, dorsal banaketea; 09:30ean, 31K material ikuskapena; 09:45ean, 31K danok urtekeran; 10:00etan, 31K lasterketearen urtekerea; 11:00etan, lasterketa laburreko korrikalarien material ikuskapena; 11:15ean, 21K lasterketako korrikalari guztiak urtekeran; 11:30ean, 21K lasterketearen urtekerea; 14:30ean, sari banaketea. Astegoienean zehar bazkaltzeko eta afaltzeko eskaintza zabala egongo da: herriko tabernak, txahala, talogunea, *foodtruckak*...

URRI LEHENENGOAK 29
BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Iturberen eskutik liburutegian.

URRI LEHENENGOAK 30
ARTEA

09:30ean, Mikel Deuna Arteako Jubilatuen Elkarteak antolatuta, Leitza eta Lekunberrira txangoa. Izena emoteko atzen eguna hilaren 24a udaletxean edo jubilatuen lokalean hilaren 22 eta 23an, 17:30ean.

LEMOA

18:00etan, Alberto Bargos ipuin kontalariaren *Denak berdinak, denok desberdinak* ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean. Izena alde aurretik emon www.lemoa.net udal webgunean.

URRI BIGARRENAK 1
AREATZA

10:00etatik 12:30era edo 12:30etik 15:00etara, andren eta gizonen arteko bardintasunaren inguruko formazinoa Idoia Lekueren eskutik. Herritarrakaz arreta zuzena daukienen galderak erantzun. Udaletxean

ARTEA

19:00etan, Jesus Muñiz Petralandaren eskutik, Elexabeitiko baseleizearen bisita gidatua.

IGORRE

14:00etatik 21:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Eguaztenetan 12:30etik 21:00etara. Aurrez aurreko arreta emongo da.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK MINTZAPRAKTIKA SAIOAK
 Mintzapraktika saioak euskeraz eta ingelesez bakarka zein taldeka (25 urtetik gorako lagunentzat). Telefonoa: 635 750 097.

LANA LAN EGITEKO PREST
 Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezkerro deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DOT
 Soinu ekipoa salgai: Berhinger Xenyx 2442 FX mahaia, bozgorailu bi autoanplifikauak Berhinger B300 eta hanka bi. Dana, 400 euroan saltzean dot. Interesdunek deitu 657 707 725 telefonora.

LAN BILA
 Adineko personak zaintzean ibilitako andra kubatarra lan bila dabil. Barruko neskame edo bestela. Telefonoa 688 849 089.

SALTZEAN DOT
 Ezcaray-ko arasea salgai, egoera eta

prezio sano onean. Altuerea 2,10 metro, zabalerea 2 metro eta sakonera 40 zentimetro. 615 708 238.

SALTZEAN DODAZ
 Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modelo, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

KLASEAK EMOTEN DODAZ
 3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zerbaki honetako saridunak:

1

BEGITUREN kamiseta bana.

Ainhoa Etxazarra (Bedia)

Bihotz Gorospe (Dima)

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 19 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean
sein
 e-ig

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
 Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmedu@hotmail.com

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 36
 IGORRE
 Tlf. 94 631 92 00

BIXER
 TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

ASEGURUAK:
 AUTOAK
 ETXEBIZITZAK

ZUZENBIDE
 AHOLKULARITZA:
 LAN ZUZENBIDEA
 ZERGAK
 KONTABILITATEA

DENDAK
 ISTRIPUAK
 BIZITZA...

Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxe 94 612 11 96
 Sabino Arana 3. beheka - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Anaitia
 Javi Morato
 Tel. 628 443 992

Jose Luis
 Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
 Igorre 48140 Bizkaia

94-673-70-87
 609-79-40-54

NAIARA Hortz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
 48140 Igorre
 94.631.52.26

eus



**BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!**

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartea, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA



Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.

*Euskadi,
auzolana*

